



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

IES Txurdinaga behekoa BHI

---

**Ikastetxearen kodea:**

014190

**Data:**

2023(e)ko maiatzaren 8(a)

---





# 1. SARRERA

## Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

IES txurdinaga behekoa BHI ikastetxea 014190 kodea dauka. Ikastetxeko meila 014190aa@hezkuntza.net eta telefonoa 944 28 80 03 ditu. Bilbon kokatuta dago, Gabriel Aresti Hiribidea, 8 kalean, Bere posta kodea 48004 da eta B02 berritzeguneari dagokio.

Zentruak A eta D ereduak ditu eta bere ikuspegia integratzailea, kulturazkoitza, euskalduna eta eta berdintasunean landua da. Ikastetxeko baloreak hauek dira, euskara ardatzat izatea, ikasleen aniztasuna, gaitasun digitalaren hobekuntza, elkarbizitza positiboa, kulturartekotasun ona, zantza emozionala eta genero berdintasuna. Sare hezkuntzan urte batez ibilitakoa eta heldutasun digitala ertaina da.

Familien maila sozioekonomikoa -1,27 da eta dituzten baliabide teknologikoak oso baxuak.

Bigarren hezkuntza, batxilergoa eta goi mailako lanbide heziketa dago. Bigarren hezkuntzako 4. mailan eleaniztasuna dago eta batxilergoan lau adar daude: Zientziak A ereduak, Eszeniko musikala A ereduak, Giza zientziak D ereduak eta Arte plastikoak A eta D ereduak. Lanbide heziketan Dekorazio lanen proiektuak eta zuzendaritza heziketa zikloa dago.

Klustroa 44 irakaslez osatua dago eta 229 ikasle daude ikastetxean. Hauetatik 84 bigarren hezkuntzan daude, 125 batxilergoan eta 20 lanbide heziketan.

## Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxearen gela kantitatea 77 da. Hauetatik 6 informatika gelak dira, lau DBH eta Batxilergorako eta bi lanbide heziketako goi mailarako. Ikasleek orokorrean ordenagailu propioa dute, bai batxilergoan bai DBHn rentineko ordenagailuak dituzte eta lanbide heziketan ordenagailu gela propioak.

Interneteko konektibitatea nahiko txarra eta geldoa da. Eta lan egiteko erabiltzen diren plataforma orokorrak google eta Microsoft dira. Klaseen online kudeaketarako Classroom erabiltzen da.

Ikastetxean arazorik egotekotan IKT arduradunak edo bere laguntzaileak konpontzen du eta hauek ezin badute CAUra deitzen dute arazoa konpon dezan.

## Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastetxearentzako eboluzio proiektu bat da, honekin, ahulguneak aurkitu eta hobetzeko aukera ematen du. Zuzendaritza taldeari ikastetxeak duen barne eta kanpoko errealitatea ikusten lagunduko dio eta honela erabaki eraginkorrak hartzera. Irakasleen artean hobekuntza handi bat egongo da gutxika gutxinaka kompetentzia digitalak irabazi eta landuko dituzte klasean. Gainera, ikastetxeak dituen arazoak era eraginkor batean bertaratuko dituzte.

Ikasleek bere ikuspuntua jarriko dute mahai gainean eta bere esperientzia eta iritzia kontutan hartuko da.

Gainera, proiektuaren bitartez ikastetxean egindakoa hobeto denboralizatuko da eta gainera hornidura eta espazioak kontrolatuagoak eta efizienteagoak izango dira.

Guzti honekin efizientzia handiagoko eta normalizatutako marko batena sartuko gara desberdintasun sozioekonomiko eta digitalak leunduz.

Prozesu honekin, indibiduo bakoitza digitalki ze egoeratan dagoen jakin eta bere buruaren analisia egin ahal izango du eta hobetzeko zer egin behar duen ikusi eta aurrera eraman dezake.

## Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Batzorde digitala

Batzorde nagusia: Aihen Curpion Lecue (Mentorea)

Zuzendaritza taldekoa: Ana garcia (Zuzendaria)

Besteak: Lander Brazo (IKT Arduraduna)

Iraide Carral (BEA)

Bilera eguna eta ordua

Osteguna (11:30-13:00)

Atalak

Lehenik eta behin Selfie for school galdetegia ikastetxe osoan egin zen, honekin lortu zen informazioa

AMIA

AMIA analisia

AMIAREN hausnarketa

Helburuak

Definizioa

Birdefinizioa

Ekintzen lortpena

Ebaluazioa

Ikastetxeko datuak eta justifikazioak

Atal bakoitzerako gutxienez birritan batu da lan taldea Lehenik eta behin atalaren azalpena egin eta ideak mahai gainean jarri dira. Bigarren bilera bat egin da atalaren zuzenketa eta konprobazioa egiteko.

## Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Irakasleen trebetasun digitala eta garapen profesionala finkatzeko sistema bat izango da. Gainera, ikastetxeak digitalki hobetzeko prozesu bat izango du.

Honekin, ikastetxeko helburu espezifikoak alde batera utziz, beste konkretu batzuk izango ditu eta bai ikasleen bai irakasleen egoera eta konpetentzia digitalak hobetzeko balio izango du.

Bai ikastetxeen artean bai ikastetxearen barnean informazioa eta materiala errazago konpartitzeko bide ezin hobea da.

Helburu orokorrak bultzatzeko laguntza handia da.

Kurtso hasieratik plangintza bat izan eta ideiak bateratuta izateko era eraginkorra da.



## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

**Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.**

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Hasteko selfie for school egin da ikastetxean

### 1. Analisia

#### 1.1. Ikastetxeko irudi orokorra

Ikastetxean egondako partaidetza irakasle eta zuzendaritza taldean oso handia izan da. Ikasleen artean egondako partaidetza ez da hain handia izan, hau Selfie For School burutu den datengatik izan da. Zoritxarrez aste horietan grebak eta oporrak egon ziren.

Momentuz, aukerako galderak ez sartzea erabaki da. Honela A4-A5, B4, C10-C16, E5, G7tik G10era H10etik H13rako galderak ez dira landuko.

#### 1.2. Irizpideak

Gure egoera ikusita, lehenik eta behin irizpideak jarriko dira. Egindako grafikoak ikusita hirutik beherako erantzunak gainditu gabetzat hartuko dira eta lehentasuna izango dute analisian. Honela, 4.2 tik gora dutenak analisirako indar puntu bezala hartuko dira.

Azterlana ondo egiteko analisia lau taldetan banatuko da:

|                                                         |                |
|---------------------------------------------------------|----------------|
| Analisirako tartea                                      | Egokitasuna    |
| Hirutik behera ( $x < 3$ )                              | Hobetu beharra |
| Hiru eta hiru koma sei artean ( $3 < x < 3,6$ )         | Hobetzear      |
| Hiru koma sei eta laukoma bi artean ( $3,6 < x < 4,2$ ) | Ondo           |
| Lau koma bitik gora ( $4,2 < x$ )                       | Indargunea     |

Galderen arteko puntuazio diferentzia rolen artean aztertzean irizpide hauek hartuko dira.

|                                                  |               |
|--------------------------------------------------|---------------|
| Puntuazioa                                       | Egokitasuna   |
| Zero eta zero koma bost artean ( $0 < x < 0,5$ ) | Normala       |
| Zero koma bost eta bat artean ( $0,5 < x < 1$ )  | Nahiko handia |
| Batetik gora ( $1 < x$ )                         | Handia        |

Faktoreen portzentajeak kontuan edukitzean izango diren irizpideak

|                                          |             |
|------------------------------------------|-------------|
| Portzentaje                              | Egokitasuna |
| %35 baino gutxiago ( $x < \%35$ )        | Baxua       |
| %35 eta %70 artean ( $\%35 < x < \%70$ ) | Ertaina     |
| %70etik gora ( $x > \%70$ )              | Altua       |

Faktoreen portzentajentzako aldea aztertzean irizpideak

|                                   |             |
|-----------------------------------|-------------|
| Portzentaje diferentzia           | Egokitasuna |
| %20 baino gutxiago ( $x < \%20$ ) | Egokia      |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |               |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| %20 eta %30 artean ( $20 < x < 30$ )                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | Nahiko handia |
| %30 eta %40 artean ( $30 < x < 40$ )                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | Handia        |
| %40tik gora ( $x > 40$ )                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | Oso handia    |
| <p>1.3. Emaita onak dituzten galderak</p> <p>Galderak aztertuz gero badaude zenbait galderen erantzunak batz bestetik gorakoak direnak: A3, C5, E1 eta E4.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |
| <p>1.4. Emaita txarrak dituzten galderak</p> <p>Galderak aztertuz gero badaude zenbait galderen erantzunak batz bestetik beherakoak direnak : H6 ,G5, G6 eta F6</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |               |
| <p>1.5. Konparazioak</p> <p>Orokorrean zuzendaritzaren emaitzak beste taldeen emaitzak baino hobeak dira. Ikasleek, aldiz, txarrenak. Dena den, azpimarragarria da, pedagogia atalean, irakasleek nota hobeak jarri dutela eta zuzendaritza eta ikasleek nota oso antzekoa.</p> <p>Bestalde, ikaslearen konpetentzia digitalean irakasleek ikasleek baino nota hobeak jarri dute.</p> <p>Kolaborazio eta sarean desberdintasun handiak daude: Ikasle eta zuzendaritza artean 1,4 eta irakasle eta zuzendaritza artean aldiz, 0,9.</p> <p>Ebaluazio jarduerak atalean zuzendaritza eta ikasle arteko aldea puntu batekoa da.</p> <p>Ikaslearen konpetentzia digitalak atalean zuzendaritza eta ikasle arteko diferentzia 0,9 puntukoa da.</p> |               |
| <p>Galderak banaka aztertuz, honako hau ikusi daiteke:</p> <p>Pedagogia: laguntzak eta baliabideak atalean E1, E4 eta E2 galderetan irakasleek zuzendaritza taldeak baino nota hobeagoak jarri dute.</p> <p>Pedagogiako F6 galdera kasu berezia da irakasleek, ikasleek eta zuzendaritza taldeak baino nota txarragoa jarri duelako.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |               |
| <p>Alde handia duten galderak honako hauek dira: G1, C5, C1, F4, H4, H8, F1, B2, G3, H1, F6, G5 eta G6.</p> <p>Zuzendaritza eta irakasle artean alde handia duten galderak hurrengokoak dira: G1, C1, H4, D2, H1 eta F6</p> <p>Zuzendaritza taldea eta ikasle artean alde handia duten galderak hurrengokoak dira: C5, F4, H4, H8, F1, B2, G3, H1, G5 eta G6</p> <p>Irakasle eta ikasle artean alde handia duten galderak hurrengokoak dira: H8</p> <p>Badaude galdera batzuk emaitza oso antzekoak izan dituztenak taldeen artean, C2, C8, E3.</p> <p>H6 eta F5 galderetan ikasleek eta irakasleek nota berdina jarri dute.</p> <p>E3 eta F3 galderetan zuzendaritza taldeak eta irakasleek nota berdina jarri dute.</p>                    |               |
| <p>Nota txikiak dituzten galderak hauek dira:</p> <p>G5, G6, H6, F6, B2-&gt; Irakasleak eta irakasleak</p> <p>B2, H3, H1, G3, F1, H8, H4, F3 -&gt; Irakasleak</p> <p>B1, D1, D3-&gt; Irakasleak</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |               |
| <p>Nota handiena jaso duten galderak hauek dira:</p> <p>A3, A2, B3, C3, D2, G1, C1, F4, D3, H4, H8, B2, H1-&gt; Zuzendaritza</p> <p>E1, E4-&gt; irakasleak</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |               |

C5-> Zuzendaritza, irakasleak

Nota altuenak eta baxuenak hauek dira.

Nota/Nork

Zuzendaritza taldeak

Irakasleak

Ikasleak

Nota altuena

4,5

4,5

3,9

Nota baxuena

3,5

3,1

2,9

Ikasleek ez dute 3,9 tik gorako notarik jarri. Beraz, ez dute indargunerik aipatzen.

Zuzendaritza taldeak ez du 3,5tik beherako notarik jarri. Beraz, ez dute ahulgunerik aipatzen.

Notarik txarrena ikasleek jarri dute.

Nota altuena zuzendaritza taldeak eta irakasleek jarri du.

Gainera datuak aztertzean hau ikusi daiteke:

Orokorrean zuzendaritza taldeen notak 3,8etik gorakoak izan dira.

Orokorrean irakasleak 3,2 eta 3,8ko noten artean ibili dira.

Orokorrean ikasleak 3 eta 3,5 noten artena ibili dira.

Orokorrean ikasleak parte hartu ez duten galderetan nota hobeja jaso da.

#### 1.6.Teknologia mugatzen duten faktoreak

Ikus daitekeenez, diru falta ez da arazo bezala hautematen, hau irakasleen bostenak baino ez du uste eta.

Zuzendaritza taldeak adierazten du ekipamendu falta dagoela.

Zentroko internet konexioaren inguruan zuzendaritza taldeak fidagarria ez dela aipatzen du. Honen harira, irakasleen %40ak dio internet konexioa gaizki doala, oso motel.

Ikastetxeko espazioen mugatzea eta Laguntza teknikoak ondo daudela adierazten du.

Irakasleen denbora falta maila ertain batean adierazita dago bai zuzendaritza taldean zein irakasleen taldean.

Konpetentzia digitala irakasle zein ikasleen taldean nahikoa dela adierazten du zuzendaritza taldeak.

#### 1.7.Irakaskuntza mistorako faktore positiboak

Orokorrean ikastetxeak eskarmentu gutxi daukala ikaskuntza birtualeko testuinguruetan adierazten da.

Baliabide digitalak antolamendu egokia daukate. Gainera, "Ekarri zure gailua" (BYOD) politika gutxi lantzen dela esaten dute zenbakiek.

Irakasleek sare profesionaletan parte gutxi edo oso gutxi hartzen dutela ikusi daiteke, eta berdina gertatzen da irakasleen garapen pertsonalaren parte hartzearekin.

"Ikastetxeko irakasleek teknologia digitalen erabilpenean parte-hartzen dute?" galderaren erantzuna irakasleen eta zuzendaritza taldearen artean emaitzetan diferentzia nahiko handia dago. Irakasleen parte-hartze maila txikia dela dio irakasle taldeak. Zuzendaritza taldeak, berriz, parte-hartzea handia dela adierazten du.

Ikastetxeak beste erakunde eta ikastetxe batzuekin gutxi kolaboratzen duela aipatzen da.

Irakasle zein zuzendaritza taldeak estrategia digitala dagoela adierazten dute.

Ikastetxearen komunikazio estrategia egokia ez dela adierazten da.

#### 1.8.Irakaskuntza mistorako faktore negatiboak

Ikasleek gailu digitaletara sarbide egokia daukatela adierazten da. Gainera, interneten konexioa egokia ez dagoela adierazten da.

Hurrengoan, bai irakasleak bai zuzendaritza taldeak ados daude gurasoen konpetentzia digitala oso baxua dela adierazten

dutenean.

Oraingo grafiko honetan ez dago irakasleen eta zuzendaritza taldearen artean hain diferentzia handia. Orokorrean, bi taldeek faktore negatiboak hain handiak ez direlak uste dut . Hala ere, badaude hiru bat puntutan hau gertatzen ez dela:

Lehenengoa, familien kompetentzia digital baxuaren arazoa izango litzateke, eta hau bi taldeek jarri dute arazo larria dela.

Zuzendaritza taldeak zein irakasleek adierazten dute irakasleek denbora falta daukatela materialak eta klaseak prestatzeko.

Bestalde, irakasleek ikasleak entzuteko denbora nahikoa dagoela adierazten da.

Ikasleak inplikatzeko zailtasuna ez dagoela adierazten da.

Zuzendaritza taldeak ikasleen familiei laguntza emateko zailtasunik ez dagoela adierazten da.

## 2-. Hausnarketa

Lehenik eta behin kontuz portzentajeekin, zuzendaritza taldean partaide gutxiago daudenez hauen portzentajeak eta galderen emaitzak oso finkoak dira. Honekin zer esan nahi da, portzentajeak %25,%50... direla, eta galderen zenbakietan 4, 3.. direla.

Gaindituztat notaren erdia hartzen bada, hau da, 2,5 eskolak gaingitu egin eskolako talde guztiek galdera guztiak gaingitu dituzte. Honela, batez bestekoa 3,62tik hurbil egongo da, eta honek, hobetzeko aukera dagoela esaten du.

Gainera, galdera nahikotxo daude irizpideen mugetatik gertu eta kasu batzuetan diferentzia handiak daude galderen erantzunen artean.

Orokorrean, zuzendaritza taldeak emaitza hobeak jarri ditu, gero irakasle taldeak eta azkenik ikasle taldeak. Hala ere, badaude galdera batzuk jarraitasun hau apurtzen dutenak.

## Zuzendaritza taldea

Zuzendaritza taldearen emaitzak orokorrean 3,5tik 4,5ra doaz. Orokorrean lautik hurbil daude guztiak.

Emaitza hoberenak kolaborazio sareak eta etengabeko prestakuntza profesionalak lortu dituzte. Txarrenak, berriz, pedagogian: laguntza eta baliabidetan daude.

Eskolako estrategia digitala A1 eta A2 ikastaroekin sendotu egin da. Bide berdinetik jarraituz, aurten B1 eta B2 ubideak egingo ditu klaustro osoak. Kolaborazio sareak indartu dira, irakasle bakoitzak bere ordenagailua daukalako eta zentroko Google Site martxan jarri da.

Balio digitalen sortzeak eta ikaskuntzarako ingurune birtualerako erabileran daude balorazio baxuenak. Arlo hau indartzeko, Pasadan urteko IPDko ekintza planean jasota dago irakasle bakoitzak baliabide digital propio bat sortu beharko duela. Honez gain, ikastetxeko Google Site erabiltzen hasiko gara.

Gainera, Azpiegitura eta gailuak nahikoak direla adierazten dute emaitzetan. Hala ere, atal honetan, internetekin arazoak daudela adierazten dutela azpimarratzekoa da. Internet arazoak egotea konpondu behar den arazo bat da, plan digitala aurrera eramatea oinarritzkoa delako. Berdin da azpiegitura eta gailuak edukitzea , internet gaizki badoa edo arazoak ematen baditu, oinarritzkoak hutz egiten badu, besteak ez du emaitza onik ekarriko

Pedagogian: laguntza eta baliabideak nota txarrak jarri dituzte, gehien bat ikaskuntzaren auto-hausnarketa eta ikasleen arteko zuzenketekin erlazionatuta dauden galderetan. Hala ere, nota hauek 3,5ekoak dira eta median daudela esan daiteke.

## Irakasleak

Irakasle taldearen emaitzak hiru eta lau artekoak dira orokorrean. Galderen erantzunen artean ez dago alde handirik, baina badaude pare bat azpimarragarriak direnak: E1,E4 oso nota altua dute eta G6, aldiz, oso baxua.

Honela, irakasleek pedagogia laguntza eta baliabideak arloaren inguruan iritzi ona daukate. Bestalde, Ebaluazio jarduketak eta kolaborazio sareak emaitzarik txarrenak jaso dituzte 3,4 punturekin.

Honekin baliabide digitalak nahikoak eta onak direla eta hezkuntza komunitatearekin komunikazioa ona dela adierazten da.

Irakasleentzako ere, atal pobreena ebaluazioa da,. Hauentzako ere, ikasleen arteko zuzenketekin erlazionatuta dauden galderak emaitza oso baxuak izan dituzte. Ondorioz, berdinaren arteko ebaluazioak gehiago egin behar direnaren ondorioa ateratu daiteke. IPDko ekintza planean islatuta dago koebaluazioaren aplikazioa.

Honetaz gain, irakasleen iritzia ikasleen kompetentzia digitalarekiko nahiko baxua da. Orokorrean informazioa egiaztatzen ez dutela eta beste lankideen lanari behar bezalako balioa ematen ez diotela adierazten dute emaitzek. Honek arazoak ekarri ditzake taldeko lanak egitean eta informazioa bilatzean.

## Ikasleak

Ikasleen emaitzak orokorrean 3 tik gorakoak dira, media 3,4an gutxi gora behera egonda.

Emaitzarik hoberenak azpiegituretan eta ekipamenduan eta pedagogian eta laguntza eta baliabidean daude eta txarrena, aldiz, kolaborazio eta sareetan. Azken honetan bi nota hirutik beherakoak dira: H1 eta B2. Galderen emaitza onak aztertzen badira, C8 galderak emaitzak oso altua lortu duela esan genezake. Ondorioz, esan daiteke ikasleria eskura dituen gailu digitalak nahikoak direla.

Ikasleen artean oso ondo ikusten da notarik altuena ez dela laura heltzen eta aldi berean hirutik beherako nota dituen bakarra dela.

Talde honekin ere azpiegituren galderen erantzunak oso altuak dira. Ikasleen erantzunak ikusita eskolako gailu digital kantitatea ona dela esan daiteke. Talde honek ere interneten ibiltzeko sarbidea oso txarra dela esaten du.

Kolaborazioa eta sareak praktikan, notarik txarrena daukan atalean, notak hirutik oso hurbil daude, baina hauetariko bat aipatzekoa da, B2 galdera, non ikasleek ez daukate argi zeintzuk diren teknologia erabiltzearen abantailak eta desabantailak.

Oso aipatzekoa da, ikaslearen konpetentzia digitalean, ikasleek irakasleek baino nota hobeak jarri dituztela. Honela, ikasleak beraien konpetentzia digitala irakasleek uste dutena baino hobe dela adieraz daiteke.

## Faktoreen galderak

Faktoreen galderak ikusita, lehenik eta behin esan behar da, nahiz eta aurretik aipatua izan, internetak ez duela ondo funtzionatzen. Beste puntu bat irakasleen denbora falta izango litzateke, bai materiala prestatzeko, bai feedbackak egiteko, bai bere garapen pertsonalean, bai...

Familien konpetentzia digital maila baxua da.

Badaude galdera batzuk nabarmendu daitezkeenak. Lehenengoa beste zentroekiko harremana, zuzendaritza taldeak nota oso ona jarri du eta irakasleek, aldiz, oso txarra.

## Amaierarako hausnarketa

Azpiegituretan nahiko nota onak jarri dituzte talde guztiek, honela lan egiteko behar dena dagoela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, internet arazoak daudela azpimarratu dute guztiek, hau konpontzea ezinbestekoa da, internet edukitzea guztiz beharrezkoa da gailuekin lan egiteko eta. Gainera, DBHn Chromebookak eta Batxilergoan Windowsak daude eta internet gaizki badoa, ezer gutxi egin daiteke.

Talde guztia bat datoz puntu ahulenak ebaluazioa eta pedagogia laguntza eta baliabideak direla esaterako orduan, zehazki berdinen arteko ebaluazioan. Hau konpontzeko teknologia berrien erabilerak asko lagun dezake, baina emaitzak hobetzeko irakasleek eta ikasleek era egokian eta zuzentasunez parte hartu behar dute.

Ikastetxearen irudi osoa aztertuz, ikasle eta irakasleen ikuspuntuak nahiko antzekoak dira, zuzendaritza taldeak, ordea, balorazio hobeak egiteko joera azaldu du.



**AMIA analisia**  
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

**Faktore negatiboak**

| Ahuleziak (barne-faktoreak)               |
|-------------------------------------------|
| Ebaluazioa prozesuak                      |
| Berdinen arteko ebaluazioa                |
| Irakasleen denbora bere egitekoak egiteko |
| Materiala                                 |
| Metodologiak berriak                      |
| ...                                       |
| Informazioaren egiaztapena eta lizentziak |

| Mehatxuak (kanpo-faktoreak)          |
|--------------------------------------|
| Internet                             |
| Teknologia digitalaren menpekotasuna |
| Mobilak                              |
| Ordenagailuetan erabilpen desegokiak |

**Faktore positiboak**

| Indarguneak (barne-faktoreak) |
|-------------------------------|
| Estrategia digital ona        |
| Dispositibo digital nahikoa   |
| Irakasteko modalitate berriak |

| Aukerak (kanpo-faktoreak)                                                                                           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Irakasleak prest daude formakuntzak jasotzeko, beti ere espezifikoak badira eta beraien ordutegian sartuta badaude. |
| Akreditazio digitala, hauen proiektuen konpartitzea eta hauen gidak egitea.                                         |
| Gidak: programa desberdinen gidak eta hauen eginkizunak bilduta eduki daitezke.                                     |
| Lizentziaren atala.                                                                                                 |
| Ikastetxeko azpiegitura eta gailu digitalak nahikoak dira.                                                          |

### Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

### Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Irakasleen modalitate berrien ezagutza erabili metodologia berrietan ezartzeko eta bateratzeko.

### Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Berdinen arteko ebaluazioak eginez informazioaren egiaztapena lortzea.

### Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Gailu digitak daudenez, mobilaren erabilera ordezkatu eta erabilpen egoki bat zein den erakutsi

### Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Klaseetan erabili behar diren gailuak eta bideak zeintzuk izango diren adostu eta horretara mugatu.



### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

##### Helburua

Helburua: Aditu talde bat sortu eta honekin ikastetxearen ibilbide digitala zein izan izango den erabaki IPDakurrera eramaten diren bitartean gero oinarritzko dokumentuetan sartzeko

| Deskriptorea                                                                                              | Epea        |         |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|---------|
| LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza                                           | Maiatzak 15 |         |
| Adierazlea                                                                                                | Mota        | Helmuga |
| LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarritzko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald | Bai/Ez      | Bai     |
| LG 1.3 A2 Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak ikasleen gaitasun digitalaren garapena zehazten du          | Bai/Ez      | Bai     |
| LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f | Ehunekotan  | Bai     |

| Ekintzak                                                   | Baliabideak                     | Arduradunak             | Epea              | Egoera |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------|-------------------------|-------------------|--------|
| Aditu taldea sortu                                         | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2024/12/28, 20:00 |        |
| IPDeen azterketa egin eta egotekotan hobekuntza planak ere | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/02/15        |        |
| IPDeen kudeaketa egin                                      | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/02/15        |        |
| IPDa eta hobekuntza plana aurrera eraman                   | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/05/15, 20:00 |        |
| IMemoria eta hobekuntza plana egin                         | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/05/15, 20:00 |        |
|                                                            |                                 |                         |                   |        |
|                                                            |                                 |                         |                   |        |

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

### Helburua

Programazioetan agertzen diren proiektu interdiziplinarren bitartez ikasleek informazioa bilatzea, kontrastatzea, antolatzea, sortzea, argitaratzea eta partekatzea teknologia digitalak erabiliz

### Deskriptorea

II 2.4 Eredu pedagogikoak hedatzen dira

Epea

Maiatzak 15

### Adierazlea

Mota

Helmuga

II 2.4 A1 Informazioa bilatu, antolatu, edukiak sortu, argitaratu eta ekoizpen digitalak partekatze alderdiak

Bai/Ez

Bai

II 2.4 A2 Diziplinarteko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude.

Bai/Ez

Bai

| Ekintzak                                                                             | Baliabideak                     | Arduradunak                                     | Epea       | Egoera |
|--------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------------------------|------------|--------|
| Aditu talde bat sortu                                                                | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea                         | 2027/12/28 |        |
| Ikas egoera bat prestatu informazioaren kudeaketa nola landu eta ebaluatzen jakiteko | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta orientazio mintegia | 2028/02/15 |        |
| Ikas egoera irakasleei azaldu                                                        | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta orientazio mintegia | 2028/02/15 |        |
| Proiektuetan eta programazioetan txertatu                                            | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta orientazio mintegia | 2028/05/15 |        |
| Memoria eta hobekuntza plana egin                                                    | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta orientazio mintegia | 2028/05/15 |        |

## GP Garapen profesionala

### Helburua

klaseak digitalki era egokian aurrera eramateko beharrezkoa den informazioa ikastetxeko harrera planean sartzea

### Deskriptorea

GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa

Epea

Maiatzak 15

### Adierazlea

Mota

Helmuga

GP 1.1 A1 ikastetxean sartu berri diren irakasleentzako tresna eta aplikazio normalizatuen urteko oinar

Bai/Ez

Bai

GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerare

Bai/Ez

Bai

| Ekintzak                     | Baliabideak                     | Arduradunak                            | Epea       | Egoera |
|------------------------------|---------------------------------|----------------------------------------|------------|--------|
| Aditu taldea sortu           | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2025/12/28 |        |
| Informazioa jaso eta aztertu | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2026/02/15 |        |
| Ikastetxeko sitean jarri     | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2026/05/15 |        |
| Web orrian jarri             | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2026/05/15 |        |
| Harrera planean jarri        | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2026/05/15 |        |

## EJ Ebaluazio jardunbideak

### Helburua

**Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa egiteko tresna digitalak ezagutzera eman eta programazioetan txertatzea. Horrez gain gai bakoitzaren amaieran metakognizioa egitea**

### Deskriptorea

EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.

### Epea

Maiatzak 15

### Adierazlea

### Mota

### Helmuga

EJ 1.3 A1 Ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuak garatzeko erabiliko diren teknologia di

Bai/Ez

Bai

EJ 1.3 A2 Programazioetan, ebaluazio-, autoebaluazio- eta koebaluazio-prozesuetan erabiliko diren tek

Bai/Ez

Bai

| Ekintzak                                | Baliabideak                     | Arduradunak             | Epea       | Egoera |
|-----------------------------------------|---------------------------------|-------------------------|------------|--------|
| Aditu taldea sortu                      | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2026/12/28 |        |
| Autoebaluazioa eta koebaluazioa aztertu | Eskolako materiala eta egiturak | Klaustro osoa           | 2026/12/28 |        |
| Metakognizioa zer den aztertu           | Eskolako materiala eta egiturak | Klaustro osoa           | 2026/12/28 |        |
| Autoebaluazioa eta koebaluazioa egin    | Eskolako materiala eta egiturak | Klaustro osoa           | 2027/02/15 |        |
| Metakognizioa egin                      | Eskolako materiala eta egiturak | Klaustro osoa           | 2027/02/15 |        |
| Programazioetan txertatu                | Eskolako materiala eta egiturak | Klaustro osoa           | 2027/02/15 |        |
| Memoria eta hobekuntza plana egin       | Eskolako materiala eta egiturak | Klaustro osoa           | 2027/05/15 |        |

## EC Edukiak eta curriculuma

### Helburua

**Disziplinar-teko proiektuak aurrera eramane eta programazioetan ezartzeko koordinazioak antolatu eta irteera profilarekiko erlazioa landu teknologia digitalak erabiliz**

| Deskriptorea                                                                                               |        | Epea        |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|-------------|
| EC 2.1 Irakasgaietan oinarritutako ikaskuntza beste era batera antolatzen da eredu integratuagoak sortzeko |        | Maiatzak 15 |
| Adierazlea                                                                                                 | Mota   | Helmuga     |
| EC 2.1 A1 Ikastetxearen curriculum-proiektuak irteera-profila, ikasleen gaitasun digitalaren garapenare    | Bai/Ez | Bai         |
| EC 2.1 A2 Ikastetxearen curriculum-proiektuan, arlo edo ikasgai desberdinak garatzean, gaitasun digita     | Bai/Ez | Bai         |
| EC 2.1 A3 Ikastetxeak antolamendu-neurriak ezarri ditu diziplinarteko proiektuen koordinazioa eta gar      | Bai/Ez | Bai         |
| EC 2.1 A4 Diziplinarteko proiektuak urteko programazioetan eta unitate didaktikoetan jasota daude.         | Bai/Ez | Bai         |

| Ekintzak                                                                                     | Baliabideak                     | Arduradunak                            | Epea       | Egoera |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------|----------------------------------------|------------|--------|
| Aritu talde bat sortu                                                                        | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2027/12/28 |        |
| Disziplinar-teko proiektuak aurrera eramateko aukera eman                                    | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta klasustroa | 2027/12/28 |        |
| Proiektuak aurrera eramateko urte horretako eta hurrengo urteko koordinazio momentuak ezarri | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta ikasleak   | 2028/02/15 |        |
| Irteera profilerako daukan eragina aztertu                                                   | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta ikasleak   | 2028/02/15 |        |
| Memoria eta hobekuntza plana egin                                                            | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea eta ikasleak   | 2028/02/15 |        |

Helburua

Barne lankidetzaren bitartez eta ezagutza txokoak sortuz netiketen garrantzia landu eta hausnarketa egitea

| Deskriptorea                                                                                          |        | Epea        |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------|-------------|
| EN 1.5 Barne-lankidetzeta eta ezagutzak trukatzea espero da                                           |        | Maiatzak 15 |
| Adierazlea                                                                                            | Mota   | Helmuga     |
| EN 1.5 A1 Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko | Bai/Ez | Bai         |

| Ekintzak                              | Baliabideak                     | Arduradunak             | Epea       | Egoera |
|---------------------------------------|---------------------------------|-------------------------|------------|--------|
| Aditu talde bat sortu                 | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2026/12/28 |        |
| Egoera, lekua eta kronologiak aztertu | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2027/02/15 |        |
| Irakasleekin hitz egin eta landu      | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2027/05/15 |        |
| Ikasleekin landu                      | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2027/05/15 |        |
| Memoria eta hobekuntza plana egin     | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2027/05/15 |        |



AZ Azpiegiturak

| Helburua                                                                                             |             |         |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|---------|
| Ikasle eta irakasleei datuen babesari buruzko protokoloaren azalpena eman                            |             |         |
| Deskriptorea                                                                                         | Epea        |         |
| AZ 2.8 Neurri egokiak daude ezarrita pribatutasuna, konfidentzialtasuna eta segurtasuna babesteko    | Maiatzak 15 |         |
| Adierazlea                                                                                           | Mota        | Helmuga |
| AZ 2.8 A1 Ikastetxeak protokolo bat du, datuen babesari buruzko legearen arabera pribatutasuna eta d | Bai/Ez      | Bai     |
| AZ 2.8 A2 Ikastetxeak protokolo bat du, ikastetxeko hezkuntza-eduki digitalen babesa eta kudeaketa e | Bai/Ez      | Bai     |

| Ekintzak                                    | Baliabideak                     | Arduradunak             | Epea       | Egoera |
|---------------------------------------------|---------------------------------|-------------------------|------------|--------|
| Aditu talde bat sortu                       | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/12/28 |        |
| Datuen babesari buruzko ikas egoera egokitu | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2026/02/15 |        |
| Irakasleekin ikas egoera landu              | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2026/05/15 |        |
| Ikasleekin ikas egoera landu                | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2026/05/15 |        |
| Memoria eta hobekuntza plana egin           | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2026/05/15 |        |

IB Ikastetxeko berariazkoak

| Helburua                                                                                                      |             |         |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|---------|
| Mobilen eta erloju adimentsuen erabilera arautzen duen araudia eta protokoloa sortu                           |             |         |
| Deskriptorea                                                                                                  | Epea        |         |
| Dokumento ofizialetan mobilen eta erloju adimentsuen erabilera arautzen duen araudia eta protokoloa ezarri da | Maiatzak 15 |         |
| Adierazlea                                                                                                    | Mota        | Helmuga |
| Araudia sortu da                                                                                              | Bai/Ez      | Bai     |
| Dokumentu ofizialetan txertatu da                                                                             | Bai/Ez      | Bai     |

| Ekintzak                      | Baliabideak                     | Arduradunak             | Epea       | Egoera |
|-------------------------------|---------------------------------|-------------------------|------------|--------|
| Aditu taldea sortu            | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/10/28 |        |
| Gida aztertu                  | Eskolako materiala eta egiturak | Jakindun taldea         | 2025/10/28 |        |
| Ikastetxerako erabakiak hartu | Eskolako materiala eta egiturak | Jakindun taldea         | 2025/10/28 |        |
| Dokumentu ofizialetan ezarri  | Eskolako materiala eta egiturak | Digitalizazio batzordea | 2025/10/28 |        |



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

|    | Helburua                                                                                                                                                                                          | Noiz ebaluatu | Nola ebaluatu                                                                         | Nork ebaluatu                                               | Betetze maila | Hobetzeko proposamenak |
|----|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|---------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------|---------------|------------------------|
| LG | Helburua: Aditu talde bat sortu eta honekin ikastetxearen ibilbide digitala zein izan izango den erabaki IPDakaurrera eramaten diren bitartean gero oinarritzko dokumentuetan sartzeko            | Maiatzak 15   | Aktak<br>Aktak<br>Aktak<br>Aktak<br>Memoria eta hobekuntza plana                      | Digitalizazio batzordeak                                    |               |                        |
| II | Programazioetan agertzen diren proiektu interdiziplinarren bitartez ikasleek informazioa bilatzea, kontrastatzea, antolatzea, sortzea, argitaratzea eta partekatzea teknologia digitalak erabiliz | Maiatzak 15   | Aktak<br>Ikas egoera<br>Akta<br>Programazioak<br>Memoria eta hobekuntza plana         | Digitalizazio batzordeak, orientazio mintegiak eta tutoreak |               |                        |
| GP | klaseak digitalki era egokian aurrera eramateko beharrezkoa den informazioa ikastetxeko harrera planean sartzea                                                                                   | Maiatzak 15   | Akta<br>Akta eta memoria<br>Sitea<br>Web orria<br>Harrera plana                       | Digitalizazio batzordeak eta klustroak                      |               |                        |
| EJ | Autoebaluazioa eta berdinaren arteko ebaluazioa egiteko tresna digitalak ezagutzera eman eta programazioetan txertatzea. Horrez gain gai bakoitzaren amaieran metakognizioa egitea                | Maiatzak 15   | Akta<br>Akta<br>Akta<br>Akta<br>Akta<br>Programazioak<br>Memoria eta hobekuntza plana | Digitalizazio batzordeak eta klustro osoa                   |               |                        |
| EC | Disziplinarteko proiektuak aurrera eraman eta programazioetan ezartzeko koordinazioak antolatu eta irteera profilarekiko erlazioa landu teknologia digitalak erabiliz                             | Maiatzak 15   | Akta<br>Akta<br>Akta<br>Dokumentua<br>Memoria eta hobekuntza plana                    | Digitalizazio batzordeak eta klustro osoa eta ikasleak      |               |                        |

|    |                                                                                                            |             |                                                                                                                            |                                                                         |  |  |
|----|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|--|--|
| EN | Barne lankidetzaren bitartez eta ezagutza txokoak sortuz netiketen garrantzia landu eta hausnarketa egitea | Maiatzak 15 | Akta<br>Akta eta memoria<br>Akta eta hasetasun galdetegia<br>Akta eta hasetasun galdetegia<br>Memoria eta hobekuntza plana | Digitalizazio batzordeak                                                |  |  |
| AZ | Ikasle eta irakasleei datuen babesari buruzko protokoloaren azalpena eman                                  | Maiatzak 15 | Akta<br>Akta eta memoria<br>Akta eta hasetasun galdetegia<br>Akta eta hasetasun galdetegia<br>Memoria eta hobekuntza plana | Digitalizazio batzordeak                                                |  |  |
| IB | Mobilen eta erloju adimentsuen erabilera arautzen duen araudia eta protokoloa sortu                        | Maiatzak 15 | Akta<br>Akta<br>Akta<br>Dokumentu ofizialak                                                                                | Digitalizazio batzordeak<br>Jakindun taldeak<br>Tutoreek edo irakasleek |  |  |